

## Tolosaldea garatzen

**Tolosaldea Garatzen, S.A.eko epe luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiko epai mahaiaren behin behineko balorazioaren iragarkia. 2 txanda (BOE 16/12/2023)**

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Administrazio Kontseiluak 2022ko abenduaren 12an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, 20/2021 legearen 6. eta 8. Xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako Enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarriak onartu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (245. Zenbakia, abenduaren 28koa) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (2023ko abenduaren 16ean) Tolosaldea Garatzen, S.A.ko honako bi plazatarako:

- Turismo Bulegoko Gida Informatzailea lanaldi osoan
- Turismo Bulegoko Gida Informatzailea lanaldi erdian

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (81 zenbakia, 2024ko apirilaren 26an) argitaratu zen onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda.

Hori dela eta, 2024ko uztailaren 23an elkartu da Epaimahaia izangaien auto balorazioak eta aurkeztutako egiaztagiria aztertzeko eta hauek kalifikatzeko.

### **Bertaratutakoak:**

#### Lehendakaria

- Nekane Lopetegi Etxeberria. Abaltzisketa, Baliarrain eta Orendaingo idazkari kontu hartzailea (ordezkoa)

**Eguna:** 2024ko uztailaren 23a

**Lekua:** Lehiberri Zentroa (Tolosa)

**Hasi:** 13:00

#### Mahaikideak

- Arantxa Estanga Lasa. Tolosako Udaleko kiroletako arduraduna.
- Xabier Eleizegui Uranga. Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo plangintza eta kudeaketa unitateko burua.
- Garbiñe Olaberria Azaldegui. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko goi mailako teknikaria.

**Bukatu:** 14:30

#### **Gai-zerrenda:**


- 1.- Egonkortze prozesuko plazak eta onartutako izangaiak zehaztea.
- 2.- Plaza bakoitzeko izangaien betekizun eta merezimenduen behin-behineko balorazioa onestea.
- 3.- Azken kalifikazioak.

#### Idazkaria

- Paulino Alonso Eraso. Tolosako Udaleko kontu hartzailea.

## **1.- Egonkortze prozesuko plazak eta onartutako izangaiak zehaztea.**

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hautagai onartuen zerrendan egonik dagozkien betekizun eta merezimenduen agiriak aurkeztu dituzten izangaiak honakoak izan dira deialdi honetan aurkeztu diren plazatarako:



## Tolosaldea garatzen

PLAZA	IZANGAIAK
Turismo Bulegoko Gida Informatzailea (lanaldi osoan)	- Brian Iñaki Xabier Cullen Bruneval - Patxi Xabier Otxoa Lorente - Miren Karmele Moreno Zubeldia - Maite Arregui Sierra
Turismo Bulegoko Gida Informatzailea (lanaldi erdian)	- Patxi Xabier Otxoa Lorente - Miren Karmele Moreno Zubeldia - Maite Arregui Sierra

### 2.- Plaza bakoitzeko izangaien betekizun eta merezimenduen behin-behineko balorazioa onestea.

Betekizunak egiaztatu eta merezimenduak baloratu ostean, **epaimahaiak erabaki du:**

**LEHENA.-** Lehiaketaldiko behin-behineko emaitzak onartu eta argitaratzea, aurkeztutako agiriak baloratu ondoren eta deitutako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna betetzen dela kontuan hartuta; ondorengoak dira:

PLAZA	IZANGAIEN ORDENA	PUNTUAK
Turismo Bulegoko Gida Informatzailea (lanaldi osoan)	1. Brian Iñaki Xabier Cullen Bruneval 2. Patxi Xabier Otxoa Lorente 3. Maite Arregui Sierra 4. Miren Karmele Moreno Zubeldia	100,00 80,00 53,54 20,00
Turismo Bulegoko Gida Informatzailea (lanaldi erdian)	1. Patxi Xabier Otxoa Lorente 2. Maite Arregui Sierra 3. Miren Karmele Moreno Zubeldia	80,00 53,54 20,00

**BIGARRENA.-** Deialdiko oinarri orokorretako 10.6 puntuari jarraiki, behin-behineko emaitzak Tolosaldea Garatzen, S.A.ko web orrian eta iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hautagaiei 10 egun balioduneko epea ematea behin-behineko emaitza horien aurka dagokion erreklamazioa aurkezteko: hau da, **2024ko abuztuaren 29 arte.**

### 3.- Azken kalifikazioak.

Lehiaketaldiko behin-behineko emaitzen aurka erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, **epaimahaiak elkartzeko beharrik gabe**, behin betikotzat joko dira; eta deialdia arautzeko 10.6 oinarrian xedatutakoaren bat, izangai bakoitzaren azken kalifikazioa argitaratuko da Tolosaldea Garatzen, S.A.ko web orrian eta iragarki taulan lehiaketaldian lortutako puntuazioen guztizkoarekin, eta Lehendakariatzara bidaliko ditu gaitutako azken kalifikazioak eta eskaintako lanpostuak.